

Sare sozialetako mezuei alderdi fonologikotik begiratzuz^{1,2}

A lens on social media messages from a phonological perspective

Oroitz Jauregi*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: This paper studies the written performance of social networks (Instagram, Facebook) from a phonetic and phonological point of view, based on data gathered for the Gaztesare corpus, which was created for the description and analysis of different linguistic aspects used in social networks. Spoken language is the most common and direct source of data used in phonetic and phonological studies, whereas written sources are not so usual. However, the study presented here takes into account the written source to analyze the language used by youngsters. The main goal is to present the most significant features of speech in online social media platforms, written social networks, and how these features are reflected in the Gaztesare database.

KEYWORDS: social networks; Basque; written language; phonetics-phonology; Gaztesare.

LABURPENA: *Gaztesare sare sozialetan erabiltzen den hizkuntzaren alderdi desberdinetako deskribapena eta analisia egiteko ikerketa taldearen datu basea oinarri hartuta, sare sozialetako (Instagram, Facebook) idatzizko jardunari fonetika eta fonologiaren alderditik egindako gogoeta saioa biltzen da lan honetan. Alderdi fonetiko-fonologikotik begiratzeko abozko jarduna datu iturri ohikoena eta zuzenena izanda ere, idatzizko iturrietara joatea ez da hainbestetan egiten; aldiz, saio honetan hori egin nahi izan da egun gazteek erabiltzen duten hizkeraren azterketa egiteko. Sare sozialetako hizkeraren ezaugarri esanguratsu zenbait zerrendatzeaz gain, ezaugarri horiek Gaztesareko datu basean zer nola betetzen diren eskaintzen da.*

HITZ GAKOAK: *sare sozialak; euskara; hizkera idatzia; fonetika-fonologia; Gaztesare.*

¹ Ikasle garaian ezagututako Jose Inazioren omenaldi liburuan idatziko nuenik nekez pentsa nezakeen garai hartan. Atsegin handiz eta ohorez parte hartzen dut ekimen honetan, aro berri atsegin eta zoriontsua opatuz omenduari. Ondo bizi, Jose Inazio!

² Ikerketa Euroeskualdeak 2018/2019an emandako dirulaguntzari esker egin da.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Oroitz Jauregi. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – oroitz.jauregi@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0001-7027-3387>

Nola aipatu / How to cite: Jauregi, Oroitz (2023). «Sare sozialetako mezuei alderdi fonologikotik begiratzuz», *ASJU*, 57 (1-2), 551-564. (<https://doi.org/10.1387/asju.25967>).

Jasoa/Received: 2022-09-12; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Gaztesare sare sozialetan erabiltzen den hizkuntzaren alderdi desberdinetako deskribapena eta analisisa egiteko helburuarekin sortu zen corpusa da. 2019an eratu zen eta bi eratako datuak biltzen ditu: alde batetik, elkarriketa bidez lortutako ahozko datuak, parte hartzaileekin egindako zuzeneko elkarriketen ahozko jarduna aztertzeko, eta beste aldetik, partaideek beraiek egindako idatzizko publikazioak eta txat bidezko idatzizko elkarriketak (Instagram eta Facebook (FB) aplikazioetan).

Guri dagokigunez, idatzizko publikazioetako eta txat bidezko elkarriketetako datuen alderdi fonetiko-fonologikoari begiratuko diogu, hau da, hotsen eremuari, edo zehatzago izateko, idatzitakoak hotsei buruz adierazten duenari. Gure datu-baseari eta edozein corpusi alderdi fonetiko-fonologikotik begiratzeko, ahozko jarduna da datu iturri ohikoena. Aldiz, idatzizko iturrietara joatea ez da hainbestetan egiten, hasteko ez delako hizketa zuzena, baina aldi berean, egon direlako bestelako erreparoa idatzizko datuekiko. Ideia hau garatzeko Velosok 2019an argitaratutako artikuluari begiratuko diogu.

Hizkuntzalaritzan, batez ere mendebaldeko hizkuntzalaritzaren tradizioan, ahozkoa eta idatzizkoa bereizteko joera egon da, ahozko jarduna hizkuntzalaritzako iturri zuzen eta berezkoa dela onartuz, idatzizkoarekin gertatzen denaren kontra.

Velosok (2019) Coulmas-en 2003ko lanean oinarrituta idatzizkoa vs. ahozkoa bereizteko emandako ezaugarriak azaltzen dira laburki ondoren. Esan daiteke zenbaitetan aipatzen diren ezaugarriak zehaztu daitezkeela. Desberdintasun zerranda honi gehi dakioke idazkeran letrakako banaketak oinarri fonemikoa duela, hizketako unitatea hartzen delako oinarri idatzizko unitate izateko.

Historikoki hizkuntza guztiak hizketaren bidez eta ahoskatuaz hasi ziren. Idazketa, zeinu jakinen bidez hizketa erregistratzeko sistema aski berria da, artefaktu kultural ez unibertsala, hautazkoa eta bigarrenkaria. Honekin batera, esan behar da, orain dela oso gutxi arte hizkuntza asko hizketaren bidez bakarrik gauzatu izan dira, ez dutela idazketa sistemarik izan, eta oraindik ere badira halakoak. Beste desberdintasun bat litzateke ahozko hizkuntza irakaskuntza formalik gabe jasotzen eta ikasten dela; kode idatziak, berriz, eskolaratzea edota alfabetizazioa eskatzen du. Honetaz gain, hizketa, berez, jarraia dela esan daiteke (hala erakusten dute hots uhin zein espektrogramek), hotsak bata besterekin kateatuz kanporatua; aldiz, idazketa elementuak banatuz egiten da, baina era berean multzokatuz. Gainera, hizketa ezaugarri formalak (fonologikoak, morfologikoak, sintaktikoak, semantikoak) mugatzen dituzten hatsarre unibertsalek gobernatzen dute; idazketa, aldiz, kulturen arabera eta garai historikoen arabera aldatu egiten da. Beste desberdintasun bat litzateke hizketak ez duela, berez, arau normatiborik, nahiz araupetu daitekeen. Ordea, idatzia gizarte modernoetan zehaztua dago instituzioren batek emandako kode esplizitu, arbitrario eta konbentzionalerik. Honetaz gain, hizketak aldaketa lasterrak jasan ditzake, aldakortasuna berezko ezaugarria duelako; idatzizko formak, aldiz, berez zehaztuak eta zurrunk dira eta aldaketak ez dira ohikoak. Gainera, gertatzen direnean ere geldoki gertatzen dira.

Desberdintasun hauei begiratuta, hizketa ahoskatua, ahoskera, hau da, fonetika eta fonologiaren muina eta aztergaia, eta idazkera, bereizita doazen bideak bezala ulertu izan dira, oro har aparteko entitatetzat hartu izan dira, nahiz eta lotuta egon. Baietzapen horrek egia baduela ezin daiteke uka, eta ez da gure egitekoa aurka egi-

tea. Zenbaitetan idazkerak hizkuntzaren fonologiaz informazioa eman diezagukeela defendatzen du Velosok 2019ko lanean, eta hala egiten dugu guk ere erabili dituen argudioak hona ekarri.

Jakina da idazkera sistemak sortzeko ezagutza fonologikoa behar dela, eta bada gogoeta fonologikorik ezerezetik abiatu behar den idazkera sistema berri bat asmatu behar denean. Beraz, hortik abiatuta, sistema fonologikoez informazioa eman diezaguketela ezin uka, betiere arau ortografikoen historia aintzat hartuta, batez ere berria denean. Aro horretaz aparte, idazkeraren aldagarritasunak axola du, nola ez, gehienbat araugintzatik aldentzen denean, edo hiztunek beren beharren arabera aldatzen dutenean. Bigarren kasu hau litzateke interesgarrien alderdi fonototik, hiztunak (idazkera arauetara (erabat) mugatu gabe) bere beharrei erantzungo dielako, intuizio fonologikoari jarraituz.

Aldiz, hizkuntzalariak hizkuntza bateko fonologiazko datuak nahi dituzenean, oro har, ez dio idazkerari askorik begiratzen, baizik eta ahoskerara jotzen du zuzenean, ahal denean, behintzat. Zentzuzkoa da, informazio iturri ezinbestekoa eta zuzena baita ahozko jarduna.

Idazketaz ari garenean, hemen adierazi nahi izan da idazkera molde «tradizionala», paperean egiten dena/zena, hizkuntz eredu estandar bati jarraitzen diona, arau ortotipografikoekin arau morfologiko eta sintaktiko batzuei jarraituz lexiko estandarraz osatutakoari, idazketa estilo eta moldeez gain.

Testu idatziek hizkuntza horretako fonologiaz informazioa eman diezaguketela onartuta, aitortu behar da testu mota guztiek ere ez dutela informazio maila bera ematen. Zerrendatze eta deskribatze lanetan sartu gabe ere, testu akademiko batek, zein literaturazko batek, edo administrazio testu batean agertzen den hizkuntzak antzeko informazioa eskain diezaguke idazkera arau jakin batzuei jarraitzen dieten heinean; aldiz, idazkera arauetatik haratago joanda, idatzitako testuek bestelako xehetasunak eskain diezazkigukete. Velosoren aipua idea hau argitzen lagun dezake:

The written productions that seem to be more useful for us to get inferential access to phonological knowledge are those who are genuinely shaped by the speakers'/writers' phonological intuitions, deeply rooted in their internal phonological knowledge rather independently of cultural constraints. Among these productions, special importance should be given:

- phylogenetically, to the early written productions of humankind (prior to orthographic constraints).
- ontogenetically, to children's early productions, as well as to illiterates' or poorly literates' productions.

These productions, classified by Kress (2000) as «creative spellings» (by opposition to canonical, non-creative spellings), are assumed to reflect quite faithfully the individuals' phonological knowledge, not the knowledge of spelling rules (completely or poorly unknown among these particular speakers).

The «external» manifestations of phonological knowledge to be found in creative spellings are, as previously mentioned, the most important for the sake of the present study: it is our aim to demonstrate how observing writing —a «visible» form of speech— one can make generalisations about the «invisible» phonology of languages, as also assumed by previous research. (Veloso 2019: 6)

Velosoren hitzetan, fonologiako datuak lortzeko egoki izan daitezkeen idazkera moldeak muga ortografikoetatik ihes egiten dutenak lirarteke, baita *creative spelling* edo idazkera sortzailea, hurrek idazten ikasten ari direnean egiten dutena, edota idazten alfabetatu gabeek edo erabat alfabetatu gabeek egiten dutena. Kasu hauetan guztietan lortzen den idazketa hiztunaren ahoskerara gehiago hurbiltzen da, ez dagoelako idatzirako arauen konbentzioaren menpe, zeina fonikoki arbitrario izan daitekeen. Konbentzio ortografikotik libre egotean, aldaera fonikoak kanporatu eta ikusaraz daitezke.

Velosok aipatutako idazkera molde horrekin lotua egongo litzateke zenbait sare sozialetan erabiltzen den hizkera. Honetaz ariko gara jarraian. Halere, Velosok aipatzen dituen moldeekiko bada desberdintasun bat: sare sozialen erabiltzaileak ez dira «illiterate» edo alfabetatu gabeak. Beraz, idazmolde hori erabiltzeko hautura iristeko egiten duten bidea kontrakoa da: hizkuntzaren idazkera arauak ezagutu arren, nahita egiten den aukera da ahoskatua adierazteko arauak hautsi nahi izatea. Aipatuko genuke gertaera hau garrantzitsua izan daitekeela, ez delako intuizio fonologiko hutsetik abiatzen, baizik eta idatzizkoa izango luke nolabait oinarri.

2. Sare sozialetako hizkeraren ezaugarriak

Aurreko mendeko azken hamarkadetan garatu den informazio-gizartean bizimoduaren antolaketa aldatu egin da eta Internet sarea izan da bideratzaile nagusienetakoa. Internetaren erabilerak eta hedapenak ekarri du, besteak beste, idazkera molde berriak garatzea. Askotarikoak dira testu moduak, diskurtso moduak eta estiloak. Hemen sar ditzakegu: emailak, blogak, web orrialdeak, berehalako mezuak, skype, twitter eta antzekoak. Denboran zehar horien ezaugarriak ere aldatzen doaz, lastertasun handiz, gainera.

Idazlearen eta hartzailearen arteko erlazio eta harremanaren arabera, asko alda daiteke testu moldea, eta baita testuaren helburua bera zein den ere. Ezaugarri arabera, testuaren nolakotasunak asko aldatuko dira.

(Traditional) Writing		Face-to-face Speech		
Posting	Joint Composition	Anonymous Dialogue	One-to-Many Dialogue	One-to-One Dialogue
Web page, Electronic journal,	Collaborative paper, Compositional	MUDs, <i>Online chat</i>	Conferences, BBSs, SMS	e-mail, <i>Online chat</i> , SMS
Scholarly paper	Hypertext			

1. irudia

Testuzko komunikazio elektronikoko modalitateen analisi espektrala
(López Rúa 2007: 167)

1. irudian López Rúak (2007:167) proposatzen duen *continuum*-ean mutur batean publiko zabalarentzat idazten deneko egoera legoke, eta beste muturrean, aldiz, idazlea eta irakurlea aurrez aurre ariko bailiran irudikatzen du. Idazlearen eta irakurlearen arteko distantzia horren arabera, testu mota desberdinak kokatzen ditu *continuum*ean.

Modu hauetan guztietan hizkuntza funtsezkoa da, batez ere idatzizkoa, nahiz eta ahozkoak ere baduen zeresanik, eta baita beste errepresentazio molde batzuek ere. Idazteko era testu molde hauetan guztietan aldatu egiten da, oro har. Zenbaitetan idatzizko estandar arautuan erabiltzen den idazmolde bera erabiltzen da, Internet bidezko aldizkari edo egunkarietakoa, esaterako, edo web orrialdeetakoa, paperezkoetakoa idazmolde bera da (1. irudiaren ezker muturrean agertzen direnak). Baina bide berri horietako zenbait ahozko hizketaren moldera hurbiltzen da, bai hizkera mailari dagokionez, modu informagoak bilatuz idazle-irakurlearen arteko harremana ere gertuagokoa egiten delako; era berean, ahoskeraren isla ere ikusten da. Horren adibide lirateke 1. irudiko eskuin muturrean agertzen diren txatak.

Gaztesare proiektuan, FBeko eta Instagrameko txatak eta FBeko hormako eta Instagrameko istorioen argitalpenak bildu ditugu. Eskuarlean dugun corpusa 1. irudiko *continuum*eko zein gunetan kokatuko litzatekeen begiratuta, idazlea eta irakurlea buruz buru daudeneko egoeran sartuko lirateke guk bildutako txatak, eta idazle batek irakurle asko buruan dituela idazten ditueneko egoera islatuko lukete FBeko eta Instagrameko argitalpenek.

Mota honetako mezu idatziak sarri lagunarteko elkarrizketak izan ohi direnez, lagunarteko ahozko hizkerara hurbiltzen dira. Ondoko aipuan ahozko hizkeraren ezaugarriak zein izan daitezkeen azaltzen da:

This research on CMC³ has highlighted that the interactions through media like chats, Short Message Service (SMS) messaging, Instant Messaging (IM) and mobile-text chats contain clear oral traits along with features characteristic of written language (Baron 2008; Yus 2011; Jones & Hafner 2012; Pérez-Sabater 2012). These characteristic features include: the use of emoticons, lexicalisation of vocal sounds, orthographic and punctuation mistakes, phonetic orthography and eye dialect, abbreviations, acronyms, clippings, ellipsis, use of contractions, one-word transmissions, the use of words in other languages, absence of openings and closings, short messages, short words and short sentences. (Pérez-Sabater 2015: 117)

Ahozko hizkerara hurbildu nahiak idatzizko molde ohikoez gain bestelako zeinuak erabiltzea ere badakar, emotikonoen erabilera hain zuzen ere, aipuak dioen bezala.⁴ Horiek albo batera utziko ditugu hizkuntzan gertatzen diren aldaketei begiratzeko.

Pérez-Sabater-ek goiko aipuan adierazten duenez, ortografia eta puntuazio akatsak, hotsen lexikalizazioa, eta batez ere, era batera edo bestera laburtzeak lirateke ezaugarri nagusiak, hala nola akronimoen erabilera, kontrakzioak, elipsiak, esaldi la-

³ CMC = *Computer mediated communication*.

⁴ Sentimenduak, egoerak eta nahiak adierazteko erabiltzen dira eta askotan hizketaren prosodiaren bidez adierazi nahi litzatekeenaren isla lirateke. Adibidez, irria, poza zein nahigabea adierazteko hizketan esaldi-doinua baliatzen dugu, eta mezuetan esaldi-doinurik adieraz ezin daitezkeenez, emotikonoak erabiltzen ditugu.

burrak eta hitz bakarreko bidalaldiak, besteren artean. Horiekin batera, aipagarria da beste hizkuntza batzuetako hitzen erabilera eta baita ortografia fonetikoaren erabilteza ere; hau da, ahoskatu bezala idatzi nahia.

Silva-ren lanak (2006: 50) testu mota honek dituen bereizgarriak jasotzen ditu, bibliografia aberatsa erabiliz. Autore honek dioenez, txatetako idazkeraren bereizgarria da sinkronoa izatea, (ia) denbora errealean gertatzen dela adierazten du eta berehalakoa izateak, berehala erantzun beharrak, zenbait ezaugarri izatea bultzatzen du, adibidez, ahalik eta hitz gutxien erabilteza, komunikazioa bideratzeko eta lastertasuna lortzeko, eta ortografiari eta puntuazioari dagozkien formalitateei arreta gutxi ipintzea. Berehalakoa izateari kontrajartzeko, idatzi estandarra aipatzen da. Silvak aipatzen duen beste bereizgarri bat litzateke lehenago ere aipatutako ahozkoaren eta idatziaren artekoa izatea, edo idatzizkotik abiatuta ahozkoari hurbildu nahia. Azkenik, jolaserako eta sormenerako bide ematen duela dio. Hau guztia erakusteko, portugesezko txatetako hizkuntzan erabiltzen diren ezaugarriak zerrendatzen ditu. Nahiz eta ezaugarriok portugesez erabiltzen direla adierazi, hizkuntza gehiagotarako ere baliagarri direla gehitu daiteke, horregatik, ondoren zerrendatu egingo dira (Silva 2006: 53-55):⁵

- i) intensificação dos desvios relativamente à norma (Benedito 2002: 7; Franzoia e Gonçalves Filho 2002; Crystal 2004: 64);
- ii) ausência de disciplina na linguagem, apenas sujeita aos limites da compreensão (Benedito 2002: 7);
- iii) emprego de abreviaturas (Mondada 1999: 6; Costa 2000; Pedras 2001: 485; Benedito 2002: 10; Franzoia e Gonçalves Filho 2002; Sá e Melo 2004: 64; Pucciariello 2004);
- iv) utilização de smileys ou emoticons (Lloyd 1993; Argyle e Shields 1996: 65; Mondada 1999: 6; Costa 2000; Pedras 2001: 485; Franzoia e Gonçalves Filho 2002; Sá e Melo 2004: 66; Crystal 2004: 75), ou seja, ícones que simbolizam emoções ou sentimentos. São construídos a partir do teclado, nomeadamente através do uso de sinais de pontuação e de caracteres a que se convencionou atribuir um valor expressivo, devido à sua semelhança com expressões faciais (Sá e Melo 2004: 66). Podem ser considerados como arte textual efémera (Reid 1991) – tendo como suporte o ecrã, a escrita vai sofrer a influência da imagem: «a new visuality, a new iconicity, will come into writing» (Kress 2000: 9);
- v) frequentes fenómenos de supressão (Benedito 2002: 11);
- vi) uso de onomatopeias (Benedito 2002: 11);
- vii) uso de estrangeirismos, em particular da língua inglesa (Costa 2000; Pedras 2001: 485; Benedito 2002: 11), que se está a tornar uma língua global (Crystal 2004: 4), «línguafranca» (Ellsworth 1994: 489) ou código internacional (Livraghi 2001);
- viii) alongamentos de vogais (Costa 2000) / repetição de letras por ênfase (Crystal 2004: 74);

⁵ Oñederrak (pertsonalki) adierazi bezala, zerrenda honetan agertzen diren zenbait ezaugarri sarea sortu baino lehenago gazte hizkeran erabili izan dira, eta pintadetan, grafitietan eta antzeko adierazpeneren ikus daitezke. Oñederrak gehitzen du hiztegiari dagozkionak are orokorragoak eta lehenagokoak dira, *slang* berezietakoak.

- ix) uso excessivo de sinais de pontuação, como pontos de interrogação e exclamação (Costa 2000; Crystal 2004: 74) ou ausência de sinais de pontuação (Yuri 2003: 1)

3. Alderdi fonologikoari begira

3.1. Oinarri teorikoa

Aurreko atalean esan dugu Gaztesare corpusean bildutako idazmoldeko hizkerak ahozkoari begiratzen diola, ahozkoari hurbildu nahi izatea dela bere ezauzgarrietako bat. Esan dugu, era berean, formalismo estandarretatik urrundu egiten dela⁶ eta horrek ahozko jardun informaleran hurbilduko luke ahozko formalera baino gehiago. Beraz, ahozko informalean gertatu ohi diren bilakabide fonologikoak islatzea lekarkeela ondorioztatu beharko genuke. Fonologia Naturalaren ikuspegi teorikoa hartuta, fonologia litzateke:

[A] system of subconscious mental processes that in real time mediate between intended but unpronounceable lexical forms of utterances and pronounceable surface forms. In production, the prosody maps lexical items in morphological and syntactic structures onto a real time rhythmic score. The scored sequence is submitted first to fortition processes that enhance the perceptibility of its rhythmic divisions (such as feet and syllables) and its phonemes, and then to lenition processes that enhance the pronounceability of the sequences of sounds within their rhythmic domains. (Nathan & Donegan 2015: 1)

Bilakabide deitzen zaie hots asmo direnetatik ahoskatzen direnetera gertatzen diren prozesuei. Ingurunegabeak zein ingurunedunak izan daitezke: lehenengoan emaitza edo ondorio dira ingurunerik ez dagoenean gertatzen direnak, hiztunak buruan dituen hots unitateak, hots asmoak edo fonemak. Bigarrengoak, aldiz, hots-unitateak bata bestearen ondoan doazenean, hotsek ingurunean kokatzean gertatzen direnak. Oraingoan batez ere bilakabide ingurudunei begiratuko diegu, hau da, bata bestearen ondoan datozen hotsen artean gertatzen diren bilakabideak izango dira nagusiki mintzagai, horiek direlako hizkera maila desberdinen artean aldagarritasun handiena erakusten dutenak, nahiz eta atal honetan aurreraxeago ingurunegabeak ere aipatuko diren.

Bilakabideek duten egiteko funtzionalaren arabera, hiru bilakabide mota bereiz daitezke (Donegan & Stampe 1979: 142): prosodikoak, *fortitioak* eta *lenitioak*. Lehenengoak ez direnez oraingorako esanguratsu, aipatu besterik ez ditugu egingo. *Fortitioak* eta *lenitioak* ez dira hizkuntzalarien gaur egungo asmakizuna, Donegan eta Stampek (2009: 3) dioten moduan, «fortitions and lenitions are mental embodiments of the contrary forces of clarity vs. ease of the great nineteenth-century pioneers of phonological phonetics». *Fortitioak* (zentrifugoak, indartzeak eta paradigmatico izenez ere ezagutuak tradizio fonologikoan) hots-unitateen ezaugarri nabarmenenak indartzen dituzte edota ondoan dituzten segmentuekiko kontrasteak indartzen dituzte (Donegan & Stampe 1979: 142). Xedea oharmen hobea izatea dute, bai unitateka hartuta, bai hotsak elkarren ondoan daudenean ere, eta horrek hotsak

⁶ Aipagarria da formalismo estandarretik urruntzeak ez duela esan nahi bereak sor ez ditzakeenik.

ahoskagarriago, eta era berean, hautemangarriago egitea dakar. *Fortitio* bilakabideak errazago gertatzen dira prosodikoki gune indartsuetan, hala nola silaba guneetan, silaba ekinetako kontsonanteetan, eta abar.

Tradizio fonologikoan «zentripetoak» edo «ahultzeak» izenez ere ezagutuak diren *lenitio* bilakabideen xedea artikulatorioa da, tasunen arteko distantzia artikulatorioa gutxituz, bai segmentuka eta segmentu-bilkurak kontuan hartuta. *Fortitioak* prosodikoki gune indartsuetan gertatzen badira, *lenitioek* gune ahuletan gertatzeko erraztasuna dute, hala nola silaba kodetan, segmentu laburretan, azentugabeko bokaletan, eta abar.

Fortitioen artean disimilazioak, diptongatzeak, silabatzeak eta epentesiak dira aipa ditzakegun bilakabide nagusienak, eta *lenitioen* artean monoptongatzeak, desilabatzeak, murrizteak eta ezabatzeak.

Fortitioak eta *lenitioak* gertatzeko egoerak eta hizketa estilo egokienak edo gertatzeko erraztasuna dutenak desberdinak dira; *fortitioak*, oharrena indartzeko bilakabideak, mezua ongi hautemateak garrantzia duen egoera eta estiloetan gertatuko dira batez ere, hiztunaren eta entzulearen arreta eskatzen duten egoeretan, mezuak eta esateko moldeak garrantzia hartzen duenean. Horrelakoetan hizketa geldiago egin ohi da, eta hizketa estilo formalak gailentzen dira. Aldiz, *lenitioak*, ahoskeraren erraztasuna bilatzen duten bilakabideak, mezuaren argitasuna hain garrantzitsua ez den egoera eta estiloetan gertatuko dira batez ere, hiztunaren eta entzulearen arreta erlatuago dagoenean, oro har egoera intimoagoetan, lagunartekoetan, hizketa azkarretan, nagusiki (Donegan & Stampe 1979: 142).

3.2. Corpusari begira

Gaztesareko corpusari begiratzen badiogu, alde batetik txatak ditugu, lagunartean egindako elkarrizketa erabat informalak direla kontsideratzen dugu, bai lagunartean direlako eta gaiak ere denetarikoak izango direla aurreikusten delako. Edonola ere, espero dugu elkarrizketa gaia ez izatea formaltasuna eskatzen duena, hala nola gai zientifikoak. Beraz, gazte hauen jarduna batez ere *lenitioak* gertatzeko egokiera hobereena dela esan dezakegu.

Bestalde, txatekin batera, FB eta Instagrameko argitalpenak ditugu corpusean, publiko zabalari eskainiak; eta hor irakurlego zabala izan daitekeenez eta ez hain pertsonalizatua, txatekin alderatuta, agian, hainbeste *lenitio* ez gertatzea espero beharko genuke. Gertutasun gutxiago egoteak intimotasun gutxiago izatea lekarke, beraz, teoriarik *lenitioen* gertakortasuna murriztagoa.

Berriro ere txatetara bueltatuz, idazmolde honek duen beste ezaugarri batek idazkeratik haratago doan kontzientzia fonologikoa uki dezakeela kontsideratzen dugu. Bigarren atalean aipatu dugunez, txateko hizkera moldearen ezaugarrietako bat da hizkuntzarekin jolaserako aukera ematen duela, lagunarteko harremanean jolasak ere lekua hartzen duelako. Jolasa gauzatzeko bidezkat har daiteke hitz berri asmatuak zein beste hizkuntzetako hitz berriak (ez neologismo teknikoak bezalakoak) erabiltzea idazkera ortografikoki exonormatibo zuzenetik urrunduz. Era honek hots berrien nolabaiteko islatzeari bide eman diezaioke, hizkuntzarentzat ez hain ohikoak diren hots egiturak ekarriz. Bide beretik indar egin dezake onomatopeien eta interjekzioen era-

bilerak ere, txatetako hizkeren ezaugarrietako bat denak eta hizkuntzaren erabileran nolabaiteko jolaserako zantzua eman dezakeenak.

Honen ondoan esan behar da hizkuntzarekin jolasteko era oso pertsonala izan daitekeela idatzian, ahozkoan gerta daitekeen modura; izan ere, pertsona guztiek ez dute hizkuntzarekin berdin jolasten (zenbaitetik hizkuntza oso modu jostarian erabiltzen dute, baina beste zenbaitetik ez).

4. Hizkuntzen arabera desberdin?

Orain artekoak esanda, galdera hau sortzen zaigu: aurreko ataletan idazmolde honentzat emandako ezaugarriak hizkuntza guztietan berdin gertatzen ote diren, edo hizkuntzen egiturak zer nolakoak diren kontuan hartuta berdin gerta ote litezkeen. Izan ere, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri fonologikoez, eta are tipologikoez, zeresanik badutela pentsatzen dugu, batez ere ondoren aurkezten den adibidea irakurrita. Kul-ek bere lanean (2007: 43) aurkezten dituen datuak ingelesezkoak dira:

RUF2T?

Are you free to talk?

‘Libre al zaude hitz egiteko?’

R = *are* ‘zaude’; U = *you* ‘zu’; F = *free* ‘libre’; 2 = *to* ‘-rako’; T = *talk* ‘hitz egin’.

Horrelakoak euskaraz sortzea ez da erraz izango, eta hor badu zeresana hizkuntzaren fonologiak eta tipologiak (eta homofonia kasu bakoitzak (*two* = *to*)). Euskaraz adibidean ikusten den letra/zeinu bakar bat hitz bat erlazioa lortzea zaila baino zailagoa litzateke eta hor hizkuntza tipok badu zeresana. Bana-banakotasun hori ikonikoki garrantzitsua da zeinua beti esanahi bakarrari lotuta gogoratzeke. Eta ingelesez, badirudi hitz batzuekin behintzat gertatzen dela, hala nola *you* (U) eta *are* (R), eta aski zabalduak daudela esan daiteke.

Gertaera hau ulertzeko, garrantzitsua da ingelesaren tipologia morfologikoari begiratzea, hizkuntza analitiko-fusiozkoa izanik, hitz batean bertan erroa eta bestelako morfo-hizkiak bereiztea askotan ez da erraza izaten, fusionatu egin daitezkeelako. Hitzen tamainari begiratzen badiogu, askotan hitzak silaba bakarrekokoak edo bikoak dira. Silaba bakarrekoko hitzak gehiago direnean, letren izenekin homofonia gertatzeko aukera handitu egiten da.

Euskaraz era honetako gertakariak ez dira ugariak, ingelesez baino gutxiago gertatzen dela esan daiteke. Nahiz eta badiren silaba bakarrekoko hitzak (*su*, *jo*, *ni*, *zu*, *lo*, eta abar), letren izenekin bat egiten duten hitz homofonoak ez dira ugari (*erre*, *zeta*, *ele*, *eme*, *te*, *jota*, *ene* kenduta). Beraz, aukerak urriagoak direla ezin uka. Honen ondoan esan daiteke euskara morfologikoki hizkuntza eranslea dela eta hitzak erroari deklinabide markak erantsiz osatzen direla. Deklinabide marka bat baino gehiago gehitu daitezkeenez bata bestearen atzetik, hitza asko luzatu ahal izatea da hizkuntzaren ezaugarria, nahiz silaba bakarrekokoak egon badauden, areago hizkera maila arduragabeetan gertatzen diren *lenitio*engatik. Hitzaren tamaina asko luzatu ahal izateak ez du errazten hitza zeinu bakarrekin identifikatzeko garaietan, hitzen luzera aldakorra izan daitezkeelako, eta hitzen forma ere bai, eransten zaizkion deklinabide marken arabera.

Hizkuntzaren ezaugarri morfologikoez letra izenaren eta hitzen artean sortzen diren homofonoak sortzeko zailtasuna aipatu ondoren, beste galdera bat ekar daiteke:⁷ baleude, erabiliko al genituzke ala normatiboagoak, arau-menpekoagoak gara egokitu zaigun hizkuntzaren une historiko soziologikoagatik?⁸

Euskaraz egon izan dira ahaleginak, *Zazpiak Batman* kolektiboak Argiarekin batera argitaratu zuen *Segapotoen Mezu Sekretua* liburuxka, esaterako. Proposamena berriro eta freskoa izan zen arren, erabilera aldetik ez zen askorik zabaldu.

5. Gaztesareri lehen begirada

Gaztesareko datu bildumatik⁹ ausaz hautatutako lagin batean oinarrituta, lan honetako «Sare sozialetako hizkeraren ezaugarriak» atalean esandakoak zer eta nola betetzen diren ikusteko saioa egingo da hemen. Batez ere Silvaren aipuan biltzen diren ezaugarriei begiratuko zaie gure laginean. Proiektuan parte hartu zuen hiztun batek Instagram aplikazioan bere lagunekin, familiakoekin, ingurukoekin izandako hizketaldi idatziei, elkarrizketei begiratuko diegu, idatzizko hizketaldi horiek zer nolako ezaugarriak dituzten ikusteko. Ausaz egindako lagina denez, hiztunen hautaketa ere ausazkoa izan da.

Laginean 510 interbentzio daude, hau da, 510 aldiz hartzen du hitza norbaitek. 510 hitzartze horietatik 66 hutsik daude, ez testu, ez emotikono; 45 emotikono hutssez osatutako hitzartzeak dira; gainerakoak testuz edota testu eta emotikonoz osatutako mezuak dira. Hitzartze bakoitzeko testu kopuruari begiratuta, mezu gehienak hitz batez, biz edo hiruz osatutakoak dira. Hitz gehiagoz osatutako hitzartzeak ere badira, baina lagin honetan ez dira asko.

Emotikonoen erabilerarekin batera, puntuazio zeinuen, batez ere galdera eta harriidura ikurren erabilera gehiegizkoa ere idazmolde honen ezaugarrietako bat da eta gure datuetan ikus daiteke esandakoa.

Elkarrizketak begiratzen hastean sortzen den zalantzetako bat da idatzitakoan erratarik ba ote dagoen. Era honetako aplikazioen erabilzaile garen aldetik, badakigu sari gertatu ohi dela idazten ari garela, testuaren berehalakotasunagatik, erratak egitea eta azkar bidaltzeagatik askotan ez zuzentzea. Esaterako, zapaldu nahi denaren ondoko teklako letra agertzea, letra larriren bat tartekatzea letra xehez dagoen testuan eta ulertzen ez diren hitzak idaztea izan daitezke adibide batzuk. Hala ere, zenbaitetan ez da erraza errata den edo ez jakitea, esaterako:

(1) Helene beandugoo datorr ID: 882068238

Adibide honetako azken hitzaren amaieran ageri den «rr» digrafoa idatzizko arauetik urrundu egiten da, bakarra izango bailitzateke idatzizko estandarrean. Errata izan

⁷ Oñederrak sortutako galdera dakart hona.

⁸ Komenigarria litzateke ikustea zer gertatzen den beste hizkuntzetan, eta are gehiago euskararen antzeko egoera soziolinguistikoa duten hizkuntzetan. Elebitasun maila desberdinak daudela eta eremuen arabera aldakor izan daitekeela onartuaz, dagoeneko gizarte elebiduna garela ezin uka daiteke. Hala ere, ez dira asko elebitasunaz baliatuz sortutako jolasak, adibidez arrakasta handirik izan ez zuen A2 «ados» (nahiz etimologikoki ere gaztelaniazko «a dos» omen den jatorria).

⁹ Datu bildumaren azterketa sistematikoa egiteko datuak tratatuta egotea komeni da eta pausu hori oraindik ere bidean dagoenez, lehen begiratuan aurkitutakoak ekarri dira.

daiteke, dardarkari baten ordez bi jartzea, baina agian hiztunak bere uste fonologikoak adierazi nahi izan ditu hitz amaiera horretan bere buruan dardarkaria, eta ez ttaka, duela adierazteko. Edonola ere, zalantzarekin geratu beharko dugu.

Bigarren atalean aipatutako zerrendan agertzen den beste ezaugarri bat kontso-nanteen eta bokalen errepikapenak dira (viii), esaterako:

- (2) Temaaaaazo ID: 3f11c962
- (3) Ondoo pasaa maitiss ID: 88206823
- (4) Baieeetz ID: 3f11c962
- (5) Zee goguukk zuekinn eotekoo yaa!!! ID: 88206823
- (6) Ossssso makina ID: c75b2189

Silvaren zerrendan agertzen den beste ezaugarri bat da (xiii) hitzen arteko mugen apurketa. Ondoko adibideetan ikus daiteke ezaugarri hau:

- (7) Igual iristezeaa ee ID: 88206823
- (8) Biyer itzingodeu ID: c2dddab8
- (9) Klasen eakutxikoiazu ajjwjejeje ID: c75b2189
- (10) Aizuuu erabaki okerrak zuk bakarrik hartzeittuzu guapi ID: 3f11c962
- (11) Enaiz goatzen ezer biali nozunikk ID: 88206823
- (12) Ordun portatille ezta behar oo? ID: 94852ccf

Beti gertatzen ez den arren, aski zabaldua da hitzen arteko mugen ezabaketa, batez ere zenbait kasutan: aditza eta aditz laguntzailearen artean, (7), (8), (9) eta (10) adibideetan ikus daitekeenez, eta *ez ezezko* partikula eta aditzaren artean, (11) eta (12) adibideetan agertzen denez. Mugak ezabatuta idazteak informazio prosodikoa ematen digu, unitate prosodikoa dela adierazi nahiko luke.

Hiztun gazteen hizkeran euskararekin batera gaztelerekin kode aldaketa egitea ohikoa da (Epelde & Oyharçabal 2019, 2020), eta hala ageri da gure datuetan ere:

- (13) Zuek ere sois mis amores ID: bd1212ec
- (14) Konfigurutzen digo ID: c2dddab8
- (15) Bai asteburu de mierda pasaet ID: c2dddab8

Euskara ez den beste hizkuntzen agerpena ez da harritzekoa eskuartean ditugun mezuetan; euskara-gaztelera arteko kode aldaketaz gain, bidalketak ingelesez (16, 17, 18) zein gaztelerez (20, 21) ere irakur daitezke, baita bien arteko kode aldaketa ere (19) (vii):

- (16) I cant see it ID: c75b2189
- (17) I think so ID: c75b2189
- (18) Sorry ID: 94852ccf
- (19) Thanks amorrr ID: bd1212ec
- (20) Diosss me mueroo ID: 88206823
- (21) Perdonn!?! ID: 88206823

Silvak aipatzen duenez, laburduren erabilera da testu hauen beste ezaugarri bat (v). Gure datuetan ere aurki daitezke laburdurak:

- (22) Bist min ID: 88206823

Aipatu zerrendan agertzen den beste ezaugarri bat litzateke hotsen ezabaketa ugari gertatzen direla. Gehituko nuke ezabaketa hauek idatziz adierazteak ezaugarri dialektalak agerian uztea dakarrela:

- (23) Txabolakin nao beak nahizun ikusi ID: 88206823
- (24) Nik eztet bukau baino han bukauko deet ID: 94852ccf

Ezaugarri dialektalak agerian uzten dira, halaber, ondoko adibideetan:

- (25) Seriyoo? ID: 9e34e5de
- (26) Autobiografia nola indezuue? Plastikakua ID: 9e34e5de
- (27) Ezdakak aktualizauta ipadian ID: 9e34e5de
- (28) Nere bizie resumitzeun kuenta ID: c75b2189

Goiko 25. adibidean agertzen den <y>ren txertaketak, igurzari edo herskari sabaikari hotsa adieraziko lukeenak, hiztunaren herri hizkera islatuko luke, herri hizkeran ahoskatuko lukeenaren moduan idazteko saiotsat har daiteke. Gauza bera esan daiteke 26. eta 27. esaldietako *plastikakua* eta *ipadian* adibideez ere, horietan <o> arteko atzeko bokala eta <e> arteko aitzineko bokalak <u> goiko atzeko eta <i> goiko aitzineko bokalaz adierazten dira, hiztunaren dialektoan ahoskatuko litzatekeen moduan. 28. esaldiko *bizie* hitzean gertatzen den asimilazioa ere ezaugarri dialektologikoaren isla litzateke.

2. atalean aipatu diren zerrendako ezaugarri batzuk Gaztesareko corpusean zerenola betetzen diren ikusi ondoren, euskarazko kasuan aipagarria izan daitekeen beste ezaugarri bat ekarri nahiko genuke: <h> grafiaren agerpen ugaria. Hegoaldeko hiztunentzat <h> grafema hotsik ez duen hizkia da, idazkera konbentzio soil bat.¹⁰ Hala ere corpusean ageri da ondoko adibideetan ikusi dugunez:

- (10) Aizuuu erabaki okerrak zuk bakarrik hartzeittuzu guapi ID: 3f11c962
- (12) Ordun portatille ezta behar oo? ID: 94852ccf
- (23) Txabolakin nao beak nahizun ikusi ID: 88206823
- (24) Nik eztet bukau baino han bukauko deet ID: 94852ccf

Agerpen ugaria aipatu dugu aurreko ahapaldian, izan ere badira idatzi estandarrean <h>z adierazten diren, baina corpusean <h> gabe agertzen direneko adibideak, esaterako:

- (8) Biyer itzingodeu ID: c2dddab8

Esan dugu hizkera molde honen ezaugarriak direla, besteren artean, ahoskatua denari hurbiltzea eta laburtzea. Ikuspuntu honetatik, deigarri egiten da <h>ren idazketa, mezuon egileen hizkeretan ez dagoelako hasperenik. Gertaera honek erakutsiko luke <h>ak baduela indarra idazketa kontzientzian eta lehenengo ataleko azken ahapaldian adierazitakoa berretsiko luke. Bertan adierazi dugu Velosoren aipu bati jarraituz, egungo sare sozialetako erabiltzaileak ez direla *illiterates or poorly illiterates*. Erabiltzaileak alfabetatuak dira, idazketa menperatzen dutenak eta idazkera sistema abiapuntutzat hartzen dutenak. Era horretara bakarrik azal daiteke <h>ren agerpen paroa idazmolde honetan.

¹⁰ Estatus desberdina du Iparraldean, hasperena fonematzat duten hiztunentzat.

6. Ondorioak

Gaztesare datu basea oinarri hartuta, sare sozialetan erabiltzen den idatzizko jardunari fonetika eta fonologiaren alderditik egindako lehen gogoetak biltzen dira lan honetan. Egun gazteek sareetan gehien erabiltzen duten idatzizko moldeak (buruz buruko elkarrizketak) ahozko hizkeraren isla bilatzen duela aipatu dugunez, idazmolde horri alderdi fonetiko-fonologikotik begiratzeko saioa egin da. Sare sozialetako hizkeraren ezaugarri esanguratsu zenbait zerrendatzeaz gain, ezaugarri horiek Gaztesareko datu basean zer nola betetzen diren azaltzen da. Beti ere idazmolde estandarretik urruntzen diren ezaugarriak hartu dira kontuan, normatik urruntzea gazteen idazkera espresiboa edo adierazkorra azaltzeko modua dela kontuan hartuta (Perez Gaztelu & Zulaika 2016). Horien artean daude, esaterako, emotikonoen erabilerarekin batera, puntuazio zeinuen, batez ere galdera eta harridura ikurren erabilera gehiegizkoa, kontsonante eta bokalen errepikapenak, hitzen arteko mugen apurketak, euskararen eta gazteleraren arteko kode aldaketa, baita euskara nahiz gazteleraren eta ingelesaren artekoa ere, laburduren erabilera eta ezaugarri dialektalen erabilera.

Sare sozialetan erabiltzen den hizkuntza idatziaren ezaugarriak euskaraz ere betetzen direla ikusi ahal izan dugu. Honekin batera, hizkuntz tipoaren arabera desberdin diren hizkuntzek joera desberdinak izan ote ditzaketan galdera aireratu dugu.

Erreferentziak

- Donegan, Patricia & David Stampe. 1979. The study of Natural Phonology. In Daniel A. Dinnsen (arg.). *Current Approaches to Phonological Theory*, 126-173. Bloomington: Indiana University Press.
- Donegan, Patricia & David Stampe. 2009. Hypothesis of Natural Phonology. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics* 45(1). 1-31.
- Epelde, Irantzu & Beñat Oyharçabal. 2019. Prepositional Phrases in French-Basque and Spanish-Basque Code-Switches. In Oroitz Jauregi & Irantzu Epelde (arg.). *Bihotz-abots, M.L. Oñederra irakaslearen omenez*, 241-263. Bilbo: UPV/EHU.
- Epelde, Irantzu & Beñat Oyharçabal. 2020. Ergative marking in Basque-Spanish and Basque-French code-switching. *Zeitschrift für Katalanistik* 33. 77-98.
- Kul, Małgorzata. 2007. Phonology in Text Messages. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics* 43(2). 43-57. <https://doi.org/10.2478/v10010-007-0013-4>.
- López Rúa, Paula. 2007. Teaching L2 vocabulary through SMS language: some didactic guidelines. *Estudios de lingüística inglesa aplicada* 7. 165-188.
- Nathan, Geoffrey & Patricia Donegan. 2015. Natural Phonology and Sound Change. In Patrick Honeybone & Joseph Salmons (arg.), *The Handbook of Historical Phonology*, 431-449. Oxford: Oxford University Press.
- Perez Gaztelu, Elixabete & Esther Zulaika. 2016. Adierazgarritasun zantzuak euskal gazteen txatetan ;). *Gogoia* 14. 105-130.
- Pérez-Sabater, Carmen. 2015. Discovering language variation in WhatsApp text interactions. *Onomázein. Revista semestral de lingüística, filología y traducción* 31. 113-126.
- Silva, Cláudia Alexandra Moreira da. 2006. *Língua@chat.pt. A escrita telemática síncrona como elemento revelador de conhecimentos linguísticos intuitivos dos falantes*. Porto: Universidade do Porto master amaierako lana. <http://hdl.handle.net/10216/14506>.

- Veloso, João. 2019. Phonology and Writing: Can we look at written productions to «see the unseeable» in phonology? *Loquens* 6(1). e059. <https://doi.org/10.3989/loquens.2019.059>.
- Zazpiak Batman. 2003. *SMS Segapotoen mezu sekretuak*. Lazkao: San Benito Ikastola.